

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko uztailak 30 / III. urtea / 86. zenbakia

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Bisitarik onenak dira laburrenak», eta esakune arabiarri zintzo jarraikiz, labur joan da ustekabeko bisitariarekin izandako solasaldia. Hogeitamarren bat urte ditu, gizasemea da eta bere bizimodu gisa horretan ateratzen duela esan dit, kopeta zimurtu gabe inongo momentutan. «Bere aurpegiari irribarrerik ez darion gizonak, ez dezala dendarik zabal», dio atsotitz txinatarrak, eta garbi dago nire solaskide ezezagunak ez duela behin ere denda bat ireki, horixe egin balu ez baitzebiltzien atez-ate joka, orain dabilen bezala, bere altxor preziatua eskaintzen.

«Ez ditugu gizonak ezagutzen gu ikustearren datozenean, beraiek bisitatu beharra dauzkagu nolakoak diren jakiteko», idatzi omen zuen Goethe idazle alemandarrak, latinoen gogoaz blaitzeko, Italian barna bidaiaria egin zuenean. Eta ideia horri atxikirik, etxeko txirrina jo du, barrukoak nolakoak ginen jakin nahian edo.

Bazkal ondoko lo-kuluxkarako ordu magikoan heldu da, eskuan paper mordo bat zuela. Ondorio zuzena: arraio halako ez-dakit-zeren saltzailea! «Gizon orok beste bat ergela dela ageriko egiten duena, gizarajo bat dela diona, haserraten da beroni holakoa ez dela frogatzen duenean», Niestzscheren burutzioa.

Lau folio era sinple batez grapatuturik luzatu dizkit, «Errefrau, pentsakera eta atsotitzak» izenburupean, non, gaztelaniaz bildurik, hemendik eta handiko ehun esakeratik gora irakurtzen ahal diren. «Gantzeko burua duenak ez du sutara hurbildu behar», hala da Danimarkan darabilten errefrauetako bat.

Baietz, hartzen ditudala jakituriaraz beteriko paper horiek, eta segidan: «Zenbat balio dute?», eta ez dutela sal-neurri zehatzik. Eta hola izan behar du, nahitaez: Nork lekike zenbatekorik ezarri, demagun, Lao-Tseren pentsakizun bati? Patrikan sartu du nire borondatea, eta suertea opatuz, alkar agurtzen dugu biok, heldu den bezala poz-antzean ere joan delarik...

Hitzezko adreilu bat falta zaio oraindik zutabe honi buruturik egoteko. Garai eta leku guzietarako aproposa: «Inurriak, zebuaren kopetan pausatutik, uste du baduela zerikusirik haren buruaren zabunarekin», Malgatxiar esakunea.

Ohatzean etzanda egonik, alboan utzi ditut bisitariaren paperak, eta inurri imaginario horrekin nire baitan bueltaka, nik ere kuluxka egin dut zebuarekin batera. Udako lozorroa.

UEUko urte haiek...

Hogeita bat urte pasatu dira Baionan UEU izango zenaren lehen edizioa ospatu zenetik. Laurogei bat lagun, euskal kulturako arlo gehien partaideak, eta bat baino gehiago harrituko lukeen izenen bat tartean. Baionatik Iruñera, Donibane-Lohizune eta Uztaritzetik igarota, zerikusi gutxi daukate oraingo edizioek ordukoekin, batzuen ahaleginak eta gogoak ildo beretik jotzen duela ez bada. Betaranoek ez dute garbi UEU bera sortu zuen helburua ulertzen duten egungo partaideek,



UEUk giro apur bat galdu duela diote batzuek.

OSKAR MONTERO

baina, nolanahi ere, pozik daude emaitzekin. «Miraria da urtetik urtera hau errepikatzea», dio Joxerra Etxebarriak, urte guztietako edizioan parte hartu duenak.

Beraiekin solastatu gara, hasierako urte haiek eta oraingoan arteko desberdintasunez, bitxikeriez, galdezka, UEUko historia ahaztua errekuiperatzeko, neurri batean sikiera. Aresti eta Oskorriekin arazoak, salmonellarekin toxikazioak, prentsa bulegoaren kome-riak... hainbat gogoeta ekarri dituzte argira.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK

'Garaikideko Pintura' erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoan uztailaren 29a arte. 13 artista ezberdinen lanak ikus daitezke, 1983 eta 1992 urteak bitartean egindakoak. Amaitu eta gero, Gares, Tafalla eta Tuterako kultur etxetara eramango dute erakusketa ibiltari hau.

ZINEMA

'Hook' izeneko pelikula eskainiko dute asteburu honetan Mues eta Legaria herrietan, Nafarroako Gobernuak udarako antolatu duen programazioaren barruan. Bihar, uztailak 31, Muesen botako dute, gaueko hamarretan, eta etzi, igandean, Legarian ikusteko aukera dago, ordu berean.

'La ventana indiscreta' Alfred Hitchcock zuzendariaren pelikula ospetsua botako dute gaur ostirala, uztailak 30, Iruñeko Burgoen Plazan, 'Udako zinema' zikloaren barruan. Iruñeko udalak antolaturik, gaueko 10.30etan hasiko da, eta sarrera dohainik izanen da.

BESTELAKOAK

Bizikleta martxa Itoizko akanpadara, La Tortuga Perezosa taldeak Itoizko koordinadoraren laguntzaz antolatuta. Ostiralean abiatuko da, arratsaldeko 5etan, Gaztelu plazatik eta igandera arte iraungo du. Kanpin denda eta lo egiteko sakua eraman behar dira, baita janaria ere —bertan gosaria bakarrik emango baitizute—.

ANTZERKIA

'El país de Hamerlin' izenburuko antzezlan eskainiko du asteburu honetan Bajo la arena taldeak. Nafarroako Gobernuak antolatuta, obra hau Mues eta Legaria herrietan plazaratuko du talde honek, arratsaldeko zazpi terdietan hasita. Bihar, uztailak 31, Legarian izango da antzerki hau, eta etzi, igandean, Muesen.

'Arratsalde bat zirkoan' antzezlan eskainiko du gaur Popi eta Zaratrako taldeak, Gares herrian. Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politika sailak antolatuta, eguerdiko 12.00etan hasiko da, herriko Mena plazan. Sarrean, noski, dohainik izanen da.

Alhama antzerki taldeak 'Con la vide del otro' izeneko antzezlan plazaratuko du bihar larunbata, uztailak 31, Korellako zezenplazan. Herriko udalak eta Nafarroako Gobernuak Kultura sailak antolatuta, aste kulturalari amaiera jarriko dio antzerki honi.

Izagaondoa, Ubargoiti eta Untziti bitarteko ibilbidea proposatzen dizuegu asteburu honetarako. Seguruenik, frankotan igaro zarete hementik, beti beste helburu zentutela. Zangoza eta Iruñea bitarteko errepidea izateaz gain Pirinotara edo Aragoira joateko bidea baita. Loitiko gainerik eskuinaldera, Iruñetik etorrira, aspaldian hustu ziren herriak daude bertan, Izagako haitz erraldoia begira dutela.

Herrien hustuketa ez da mende honetako. Mugetajarrak, esate baterako, su bat zeukan 1366an, eta 1534an, biztanlerik ez zuten tokien artean zegoen. 1897an, aldiz, sute bat izan zuen, eta orduko egunkariak jaso zuten, «biztanleak salbatu ziren, baina ez etxeak. Egun berriro dago hutsa, eta San Pedroko ermitak arrailak dauzka goiko partean. Pasatako garaietan oso erabiliak izan ziren lur hauek, eta basoek, kasu, franko egin zuten atzera. Larreak maldaz goitik igotzen ziren, dena jan nahian.

Hala eta guztiz ere, oraindik gelditzen dira jatorrizko ba-



soaren adibide ederrak, eta hustuta egotea, halaber, lagungarria izan zaio basoari aspaldiko eremuak berreskuratzeko. Jatorrizko begetazio hau ameztiak eta haritzek osatuko zuten, zenbait fago tartean.

Loitiko gainerik ateratzen den pista hartu eta Besollara helduko gara lehendabiziz. Bertatik Gergetiainera abiatuko gara, eta Itzaga mendiruntz egiten dugula, Mugeta-

jarrako tokira, eskuinaldera San Pedroko basiliza utzita. Hortik jeitsiko gara Zilegieta, bere dorrearekin eta guzti, besteak bezain hutsik, eta, kilometro erdira, bere urmahelara. Artifiziala da jatorriz, baina denboraren poderioz begetazioa sortu du, eta espezie franko hurbiltzen dira urtero. Izan ere, hemen dago Nafarroako sai sailirik handienetakoa, Itzagako harkaitzetatik etorritakoak.

ASTEKO PERTSONAIK



Miguel Indurain
Txirrindularia



Pedro Ruiz de Alegria
Gobernuko ordezkaria



Antonio Aragon
Ebroko Konfederazioko presidentea

Irabazi berria du Indurainek bere hirugarren Tourra eta hiru urtetan hiru garaipen lortzea ez da edozeinek egin dezakeen gauza. Honetaz gain, bi Giro ere irabazi ditu bi urte hauetan. Nafarroako agintariak izugarritzko 'txolloa' dute berarekin aitzaki horrekin Erroma edo Parisera joateko aukera baitute, eta ez dute inolaz ere galtzen. Indurainek etsaiak atzean utzi ditu aurtengo Tourraren edizioan, hasiera hasieratik minutu asko kendu baitzizkien. Askok diote aurtengo lasterketa aspergarria izan dela, lehen etapetan galdu zela emozioa, gainera, Indurain bera ere ez dela batere ikusgarria, garai bateko txirrindulariekin konparatuta. Egia izan daiteke, baina errealitatea ez da aldatzen, eta gaur egun Banestoko izarra da erregea txirrindularien munduan.

Pedro Ruiz de Alegria Gobernuko ordezkaria Nafarroako Gazte Kontseiluko kide batzuekin bildu da intsumisoen egoerari buruz hitz egiteko. Iruñeko kartzelan 43 intsumiso daude, eta datozen astetan gehiago sartuko dira. Estatuko beste toki batzuetan, ordea, intsumisoek urtebete baino gutxiagoko zigorrak jasotzen dituzte, nahiz eta kasua berbera izan. Ruiz de Alegria berak onartu zuen bilera horretan intsumiso naparrek tratatu ezberdina jasotzen dutela, eta honen aurrean zerbait egin behar dela: «irtenbidea aurkitu behar zaio arazo honi», azaldu zuen. Hala ere, berak ez duela halako arazoak konpontzeko kompetentziarik gaineratu zuen, baina ahal duena egingen duela, hau da, Justizia eta Armada ministroekin elkarriktarako dei bat egitea.

Itoizko urtegiko lanak ikustera hurbildu zen pasa den asteazkenean Antonio Aragon Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren presidentea. Egiten ari zirena ikusi ondoren, oso pozik zegoela azaldu zuen, lanak «hasieran aurrikusi zena baino aurreratuagoak baitaude». Hala ere, eta zonalde horretan negua oso gogorra denez, hobe dela lana aurreraturik izatea gaineratu zuen. Bestalde, lanak lau lekutan hasiak dituztela zioen, eta bosgarren lan bati buruz ere hitz egin zuen, bideak konpontzearen lana hain zuzen. Era berean, irailean bilera bat izanen dutela Madrilan esan zuen Aragonek, Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidearen finantziaketaz hitz egiteko. Bilera horretan benetako akordioak hartuko dituzte eta orain arte egin dutena aldatu daiteke.

AHAZTU GABE!

BALLET emanaldiak ikusteko aukera badago asteburu honetan Korella eta Tafallan, ostiral eta larunbatean hain zuzen. Gaur ostirala, uztailak 30, Poloniako Ballet bat arituko da Korellako zezenplazan, gaueko 10.00etan hasita. Zehazki, Lublineko Unibertsitateko Ballet Folkloriko Nazionala da arituko dena. Korellako aste kulturala izan da aste hau, eta antolatu dituzten ekitaldien artean Ballet hau ekarri dute, ekialdeko kulturaren irudi bat izateko.

Tafallan ere izanen dituzte antzeko ekitaldiak. Egun hauetan Dantza Folklorikaren Nazioarteko Jaialdia antolatu dute, atzo, gaur eta bihar burutuko dena. Gaur gauean, 10.30etatik aurrera, eta herriko zezen plazan, Greziako Xanthi Ballet Nazionala arituko da, eta bihar, larunbata, eta ordu berean, Lublineko Unibertsitateko Ballet Nazionalari tokatuko zaio. Sarrerak 200 pezetatan salduko dituzte.

Nazioarteko Dantza Folklorikoaren Jaialdi hau Lizarra, Lodosa, Korella, Tafalla eta Azkoiengo Kultura Zerbitzuek antolatu dute, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura sailaren laguntzarekin.

ADI!

Udako Programazio berezia hasiko du datorren astean Irati Irratiak, abuztuan eta ongi ateratzen bada irailean ere jarraitzeko. Bi ordu terdi eguneko eskainiko dituzte, 12.00etatik 14.30etara. Denbora horretan, agenda berezia, albisteak, elkarriktetak, musika, herriei buruzko berriak edo informazioa, eta antzeko gauzak egingo dituzte. Musika saio bereziak ere izanen dira, adinaren arabera prestatutakoak.

'TXURI ETA BELTZ'

izeneko irratsaioa izanen dugu bihar larunbata, 13.00ean, Radio Nazionalan. Larunbatero, Fermin Erbitik zuzenduta, euskarazko saioa burutzen du, eta larunbatetan bakarrik, aste egunetan ere, arratsaleko zortzietan, ordu bate aritzen da elkarrikteta, albisteak, musika, astebururako prebisioak eta antzekoak eskainiz.

Irribarreak Kroazian

P.U. / IRUÑA

Lau lizartar eta bi irurtzundar dira esperientzia honen protagonistak, gerrak izututako jendearen ezpainetan irrimarra pintatu nahi izan zutenak. Kamioneta hartu, tramankuluak kargatu, eta izugarritzko ilusioarekin, Kroaziara 'hurbildu' ziren, Nafarroan zehar egin ohi dituzten edozein muntaia balitz bezala. Hilabete eman dute bertan, hilabete eta hamasei ekitaldi, Split, Makarska eta Sibeniken. «Harreman fisikoren izugarritzko beharra dute», azaldu du Lourdes Iraola partaideak, «eta ukitu, besarkatu, denetarik egiten dute ikusi orduko. Hori ikusita indarrak hartzen genituen edozein gauza egiteko».

Hasierako asmoa Mostarren (Bosnia-Herzegovina) sartzea zen, baina mugak itxi zizkieten eta errefuxiatuen inguruetan ibili behar izan zuten: hoteletan, kanpamenduetan eta txaboletan. «Desberdintasun handia dago kanpamenduetan, errefuxiatuak zeintzu direnen arabera. Musulmanek errefuxiatuendako kanpamendu hutsak dituzte, bai karabanak, bai kanpineko dendak edo bertan eraikitako etxeak.



Espedizioko partaideak aurkezpen egunean.

JOXE LACALLE

Kroaziarrak ordea Dalmaziako hoteletan bizi dira».

Bertara mota guztietako ekitaldi mutuak eraman zituzten: haurrendakoa, helduendako, tailerrak eta abar. Hala ere, ordu-rako mota antzeko beste jendea ere arlo horietan lanean ari zela ikusita, soilik antzerki lana egin zuten. Seiak antzerki talde ezberdinen partaideak dira, espe-

rientzia handiakoak denak, eta ez dute baztertu esperientzia berriro ere errepikatzea, nahiz eta beste talde batzuek antzeko asmoa dutela jakin.

GIRO BORROKALARIA NAGUSI

Esperientzia, hangoekin harreman zuzena lortzeko baliagarria izateaz gain, gerraren ondorioak bertan

ezagutzeko parada eman die. Harrituta etorri dira, etorri ere, zenbait tokitan oraindik dagoen giro tentso eta borrokalarirekin. «Inguru kroaziarretan borroka eta gorrotoa uki daitezke», zioten partaide batzuek, «eta horrek sormen lana bultzatu nahi duen edozein ekimen galerazten du. Hortik, beraz, tolerantzia eta gizakiñ arteko elkar-ulertzea bultzatzen duten ekimenak eraman beharra, gorrotoa eta borrokaz gaindi beste erreferentziak emateko».

Espedizioak 725.000 pezetako aurrekontua zuen hasiera batean, baina zenbait arazok garestitu egin dute amaieran, eta milioitik gora izan da gastatutakoa. Hori dela eta, kontu korrante bat zabaldu dute Nafarroako Aurrezki Kutxan (CAN): 9105.22.091-2, laguntzaren bat eman nahi duen guztiarendako.

Pozik etorri dira Kroaziatik, eta kanpamenduen arduradunek ere ekitaldiek jendea gehiago bazteko balio zutela azaldu zieten. «Jendearen arteko harremana oso eskasa izaten da horrelako egoeretan, baina ikuskizunak jendaren arteko harremanak sendotzeko balio du».



GOROZIAINgo bizilagun batek orkatx bat harrapatu zuen autoarekin joan den asteartean, eta zauritua utzi. Orkatzak, arra eta 50 kilokoa, ez zeraman identifikaziorik, eta, beraz, pentsa liteke Lokizko mendizerrakoa bertakoa diren bakarrenetakoa dela. Gogoratu behar da Nafarroako Ehi-za Federazioak Landetatik ekarri zituela zenbait orkatx Lokitzen egokitze baina horiek denek identifikazio txartela zeramaten lepoan. Kotxearen gidariak, Vilorio Garde gorozaiainarrak, animalia hartu eta bere autoan sartu zuen. Ondoren Ingurugiro Sai-leko basozainak deitu eta bertara azaldu ziren, animalia zaintzeko.

SANTAKARAK zaharren etxea izango du luze gabe, Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate Departamentuak bertako udalarekin sinatu duen kontratuaren ondotik. Elkarte berriak 28,6 milioi pezetako aurrekontua izango du, eta Nafarroako Gobernuak erdia emango du, hiru zatitan: lanak hastean (% 25), lanen erdian (% 50) eta lanen amaieran (% 25). Hala ere, bertan egingo litzatekeen edozein hobekuntza edo aldaketa Santakarako Udalak ordaindu beharko du.



ORIKAINgo gertaerek astindu dituzte Nafarroako oporraldi lasai hauek, eta kezka eta harridura sortu dute, hartu duten larritasunengatik. Igandean piztu ziren istiluak, herriko festetan auto baten inguruan zegoen eztabaidaren ondoren Felix Iaben sorarrendarra zauritua gelditu zenean. Eztabaidan parte hartu zuen beste lagun batek makila batekin jo eta oso zauri larriak eragin zizkion buruan, eta gaztea koma sako-nean gelditu zen. Ondorioz, bertan zeuden ijito familiak bota zituzten orikaindarrek, istiluen eragileak zirelakoan. Hala ere, bere abokatuak azaldu zuenez, akusatua ez da ijitoa, haiekin harreman zuzena izanik ere. Orikaingo bizilagunek haserre bizia erakutsi dute ondoko egunetan bertara hurbiltzen diren ijitoek sortutako istiluengatik, eta protestak areagotu egin dira istilua-ren ondoko egunetan.

EZKIROZko pabilioi batean kontrabandoko 44.500 pakete tabako atzeman zuen joan den asteen Espainiako Aduanetako Zainketa Zerbitzuak, eta bertako jabea atxilotu. Honekin 500.000 dira dagoeneko aurtan Nafarroan atzemandako tabako paketeak. Adituen arabera, Winston eta Camel marketako tabakoak 10 milio pezetako balioa izan zeza-keen merkatura helduz gero.

FESTAZ FESTA

GARES

Uztailak 30, ostirala:

09.00 Garesko Gaiteroekin dianak.
12.00 Adinekoentzat dantzaldia San Pedro plazan.

12.00 Popi eta Zaratrako pailazoak.
13.00 Dantzaldia, erraldioak eta gaiteroak adinekoen omenez.

17.30 Guenbe Leringo ganadutegiko adardunen entzierroa.

20.30 Alaska orkestra.

22.00 Larraintantza, Garesko Jota eta zezensuzkoa.

24.30 Alaska orkestra.

Uztailak 31, larunbata

07.00 Dianak Garesko gaiteroekin.

08.00 Ahuntzen aldapan behiak.

10.00 Herri Kirolak.

13.00 Abadejada lehiaketa.

16.00 Ehiza ibilaldia.

17.30 Zezen jaialdia Guenbe ganadutegiko adardunekin.

20.30 Ostadar taldea.

22.00 Larraintantza, Garesko Jota eta zezensuzkoa.

24.00 Ostadar taldea.

24.00 'Pobre de mi'.

ETXARRI-ARANATZ

Uztailak 31, larunbata.

13.00 Suziria. Erraldio eta buruhandiekin kalejira.

14.00 Sakanako trikitilariak.

15.00 Herri bazkaria herriko plazan txaranga eta Bandarekin.



18.30 Auzate.

19.00 Auzoen arteko II.txapelketa.

19.30 Kalejira txikien bandarekin.

20.30 Txaragorri folk taldea.

22.30 Zezensuzkoa eta kalejira.

24.30 Drindots taldearekin gaupasa.

Abuztuak 1, igandea

10.00 Diana txikien banda eta Incansables txarangarekin.

11.00 Erraldio eta buruhandiak.

11.30 Auzate eta gosaria Gure Etxea elkarteak prestatutik.

12.00 Herri-Kirolak, Aizkolariak: Erdozia eta Barberena Gorriti eta Lopezen kontra. Mindegia Nazabal II.aren aurka.

13.30 Jazz kontzertua.

17.30 Incansables txaranga.

18.00 Artzain-txakurren erakusketa.

20.30 Ostadar taldea.

24.30 Ostadar taldea.

OLAZTI

Uztailak 30, ostirala

20.00 Herri Kirol finalak herriko koadrilaren artean, kanpoko aizkolari-aren laguntzaz.

24.00 Inguma taldea.

Uztailak 31, larunbata

11.00 'Don Kixote' antzerki obra, Nafarroako Antzerki Eskolak eskainita, Vicente Argomaz plaza eta inguruetan.

13.00 Scala 2.000 taldea.

14.30 Herri bazkaria bertsolari eta trikitilariekin.

18.00 San Miguel elkarteak antolatutako pilota txapelketaren finala.

20.00 Scala 2.000 taldearekin dantzaldia.

20.30 Tunantes del Norte txaranga-ekin kalejira.

22.00 Intsumisioaren aldeko afaria.

24.00 Scala 2.000 taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 1, igandea

11.00 Haurrendako jokoak Sutegi parkearen inguruan.

13.30 Kontzertua Araiko Udal Bandaren eskutik San Miguel plazan.

14.30 Haurrendako bazkaria.

16.00 Lindus Amapolus animazio taldea.

17.00 Olaztiko Dantza taldearen eta beste talde baten emanaldia.

21.00 Ogi, gazta, sardina eta ardo banaketa.

24.00 Joselu Anaiak.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

«Hemen ez da girorik», zioen aste honetan bertan Larraonara lehendabizikoz azaldu zen neska batek, kafe orduan zegoen giro lasai eta erlaxatua ikusita. Gaueko parrandak, Garesko jaietara eskapada famatuak, udako kanpamenduen irudia, beraz, gezurra ote? Jendea solasaldian patsadaz, eguzkipean kalean, goizean ikasitakoaz ari zirela ematen zuen, barteko parrandaz baino. Eta hala zen. «Duela zenbait urte egiten ziren parranda guztiak barruan egiten ziren», azaldu du Jexumari Zalakain 'beteranoak', «Gareskoa kenduta, jakina, eta orain jendea gero eta gehiago ateratzen da kanpora. Orain Tapia ta Leturia ekarri behar da hau animatzeko, eta iniziatiba falta pittin bat bada-go».

Asko aldatu da UEU Baionan 1973an lehendabiziko ekitaldiak egin zirenetik. Tentsio giroa eta boluntarismotik patxadara eta erakunde itxura hartzeraino. Euskal kulturako —zentzu zabalean— jendearengandik uni-bertsitate arloko ikasleenganaino. Laurogei partaidetik 600 inguru izateraino. Baionatik Iruñeraino. Helburua eskura ikustetik amets izateraino? «Nere ustez orain datorren gazte askok ez daki UEUko benetako helburua zein den. Askorentzat euskal unibertsitarien topalekua da, giro lasaian, baina helburua transmititzen ez dugu asmatu. Ez zaie behar bezala adierazi». Iritzi hori berretsi du Txillardegik, hasierako edizioetatik hona urtero parte hartu dutenetakoak, baina ohizko unibertsitateekin alderatuz gero desberdina dela jakin badakitela azpimarratu du. «Haiek ez dute pairatu gurea, baina badakite hau ez dela karre-ra edo mailaz igotzeko ezer. Hau euskaraz bizitzeko toki bat da».

UEU-N Joxerra Etxebarria,
MEKAN Txillardegi, Jokin
BEZALA Apalategi, Koldo Go-
rostiaga, Maite Idirin... urte guzti hauen lekuko dira, eta beraiek ezagutzen dute inork baino hobeki zertan aldatu den eta zeri eutsi dion UEUk. Elkarrekin esertzen dira oraindik bazkaldu eta kafea hartzeko, eta elkarrekin egiten dute hainbat ateraldi, Nafarroa ezagutzeko. Hala ere, gazteen artean gustura daudela diote eta ez lekuz kanpo, inondik inora. «Neretzako musulmanen Meka da hau», dio Gorostiagak, «eta pilak kargatuta ateratzen naiz. Nik askotan uraren arazoarekin konparatzen dut. Sevillan urarekin arazo handiak dituzte, eta hemen egunero dutxatzen gara, arazorik gabe. Ba, Sevilla, guretzat, Euskal Herriko Unibertsitatea da, eta UEU, Euskal Herria». «Freskagarria da gazteen artean ibiltzea», aipatu du Apalategik, «eta urtetik urtera aurpegi berriak ikustea. Lehen egiten ziren ekintza guzti-tara lagun berberak agertzen ginen...»

Urte guzti hauetatik ongi gorde dituzte gogoan Garesen eta Iruztunen egindako parrandak,



Arazo batzuk kenduta, ibilera lasaia izan du UEUk.

JOXE LACALLE

Salmonella gora-behera

Urte franko pasatu dira Baionan egin zen lehen ediziotik, baina batzuek urtero-urtero eutsi diote zitari: Udako Euskal Unibertsitateko beteranoak dira. Oskorri eta Arestiren

ekitaldi baten inguruko istiluak, salmonellak sortutako toxikazioa, Garesko festak, askoren desertzioak... dena bizi dute, eta gazteen artean «arnasa hartu eta pilak kargatu» egiten dituztela diote.



Etxebarriaren teleskopioak edo Txurrukaren akuriak, baina bi gertaera etortzen zaizkie burura bitxikeriaren batez galdetzen zaienean: hasierako urteetako tentsio uneak eta salmonellak duela sei urte sortutako toxikazioa. «Afari zorigaiztokoa izan zen», azaldu du Zalakainek, «eta 150 bat lagunek jasan behar izan zuten toxikazioa. Horri esker, beste urtetan lortu ez duguna erdietsi genuen: 'Diario de Navarra' egunkariaren lehendabiziko orrialdean agertzea». Etxebarriak ere bizi zuen orduko, nahiz eta toxikaziorik ez izan. «Oso esperientzia aberasgarria izan zen, elkartasun giroa oso polita izan baitzen. Egoera latz batean ara-

zoak konpontzeko denen ahalegina izan zen hura».

ARESTIREKIN ISTILUAK BAIONAN

Zalakainek ere prentsa bulegoan bizi izandakoa du gogoko, egunkariz egunkari ibiltzen zirenean berriak eramateko. «Informazioa saltzen genuen, eta idatzi, argazkiak atera, eta egunkarietara eramaten genituen. Egunkarientzako langile berriak kontratatzea bezala zen. Orduan kazetaritzarekin harreman zuzena ez zeukan jende asko zegoen hor, baina gaur egun bere benetako helburua hartu du azkenean: egunero hona azaltzen diren kazetariei laguntza eta informazioa ematea, hain zuzen ere».

Jokin Apalategiri hasierako edizioan gertatutako istiluak datozkio burura atzera begiratzeko eskatzen zaionean. Baionan egin zen lehen edizioa, 1972an, eta orduan ez zen artean UEU. Pilpilean zegoen Euskal Herria, alde ideologiko eta kulturean, eta tentsio handia zegoen. Orduko edizioaren azken ekintza Oskorriren kantaldia zen, Gabriel Arestik aurkezpenean egiten zuela. Ordubeteko emanaldia izan zen, eta taldeak poetaren poemak eta diskurtsoa ilustratzen zuen. Hala ere, diskurtsoa ez zen denen gustukoa izan. «Guri oso orientatua iruditu zitzaigun, ezker ez-abetzaleko joerarantz: Euskal Herriko alderdi komunistaren tesira,

hain zuzen ere. Orduan, bukatu zuenean, altxatu egin ginen batzuk, gainera igo, eta bere diskurtsoa hitzez hitz hasi ginen kritikatzeko, finean egoeraren analisia eta diagnostikoa egin baitzuen berak. Aresti oso nerbiooso jarri zen, eta publikoaren artean ere ageri ziren tentsioa eta nerbioak. Jean Haritzelhar zen arduraduna, eta bera ere altxatu, eta dena bertan behera gelditzen zela esan zuen. Bota egin gintuzten handik». Hurrengo urteetan Donibane-Lohizunen eta Uztaritzen izan ziren UEUko saioak, eta Maite Barrenetxek bertako telebistan hilean behin egiten zen laurdeneko saiora gonbidatu zituen Apalategi, Ramuntxo Kanblog eta Joxerra Etxebarria. «Hor aritu ginen, UEUren nondik norakoa eta helburuak azaltzen, baina denbora baten buruan etorri zitzaidan Maite suprefetak saioa debekatua zuela esanez. Behin ere ez da ateratu».

Oraingo garaia hobekien direla ezin uka, baina bidean hasierako helburua lausotu egin den beldur dira batzuk. «UEU erakundetu egin da», dio Zalakainek, «eta galdu da pittin bat bizitasuna eta ilusioa. Bien artean beharrezkoa den orekaren parte txarrean gaudela, eta ilusioa berreskuratzen lagun dezakeena hasierako helburuei eustea izan daiteke».

Nork ez du desiatu noiz edo noiz ondoko herriko harroputzei iraindu edo beren buruaz farre egitea? Nork ez du gogoratu gurasoei aditutako izengoiti hori, auzokoari izendatzeko? Denbo-

raren poderioz izen asko galdu egin dira, eta hemen dakartzkiegu berriro gogora, hasieran herrietako izenekin egindako esaldiak, aurrerago izengoitiek beraiekin.

Herrien izenen esaerak, galbidean

E. DIEZ DE ULZURRUN / IRUÑEA

Egun, edozein herrira ailegatu gero, herri horren izena ikusiko dugu errepede bazterreko seinalean. Toki horretatik aitzinxeago, lehenbiziko etxeko paretan ezarritako kartel batek erran digu zein herritara heldu garen, eta, baita herri horri dagokion ibarra ere. Nafarroako armaria ere azalduko zaigu, zein herrialdetan gabiltzan duda mudarik izan ez dezagun; zaharretan, laureatu gabeko armari gorria, eta berriagoetan, Francoren 'opari berdeaz' apainduta. Bide bazterrekoan zein paretan ezarritakoan, herriaren izen hutsa da, deus gehiagorik argitzen ez diguna.

Lehenago, ez zen letramoldeetan paratutako izenik, baina bazen ahots moldez egindako esaerarik herrien izenei buruz. Esamoldea izan zitekeen, edo bertzenaz, hitz bat baizik ez, herri izenarekin batera ahoz aho zebilena. Urte zaharrak joan egin dira, baita berriak etorri ere, eta, gertatu diren aldakuntza handiak eta euskararen atzerakada direla medio, atzendu egin dira gisa horretako esaerarik gehiengoak.

Esaera zahar horiek zer edo zer adierazten digute herriaren gainean edota herrikoen nortasunaz, gustoez edota izakeraz eta gehienetan haien lepotik irri egiteko eginak izan dira. Horrekin zer ikusia badute izengoitiek, noski, baina goitzenarekin batera baziren eskutartean darabilzkgun bertzelako esamoldeok. Bi modukoak dira: alde batetik, herriaren izenak aurrean agertzen direnekoak, hots, 'Atez, zazpi herri eta lau apez' (jende pobrea, nonbait, herri bakoitzean apez bana ez izaki), edota 'Usi, han berean eta ez ikusi', Txulapaingo herri hori ttar ttarra delakoz. Besteetan, herriaren izena atzekaldean agertzen da: 'Pertikak luze Burutaingo', 'Babazorro Olabeiko' eta gisa horretakoak.

Nabarmendu beharra dago, esaera horietako zenbait, euskara galdua den ibarretako herriei dagozkiela: Olaiibar, Lintzoainibar, Arriasgoiti, Iruñerria. Gehien gehienetan gainera, herri izena azkenean agertzen da. Konparazio batera: 'Herri muskil haundi Ostizko' eta 'Tunttun haundi Beraizko', Olaiibaibarren; 'Andre eder Ostizko' eta 'Ezkilek eder Enderizko' Odietan; 'Lur me franko Zalbako' eta 'Zerrol mea Zunzarrengo', Arriasgoitin; 'Tipulazorro Uherterko' eta 'Karrika luze Billabako', Iruñerrian (gogoratu, uharteraren erdarazko goitizena 'Cebolleros' da, eta, Indurainen jaioterriburuaren ka-

rrika nagusia luze da, zinez).

Aitzinera jo baino lehen, bidezkoa da aipatzea esaerarik gehienak Javier Irigaray Imaz jaunak bilduak direla. Herriz herri bertzelako lana egiten zebilelarik, noiz behinka, halako esamoldeak agertzen zitzaizkion. Bildutakoak, argitara emanak dira 'Fontes Linguae Vasconum' delako aldizkariaren 31garren zenbakian hala nola 'Eusko Ikaskuntzaren' aldizkari batean.

Eta, Javier Irigaray Imaz jaunak Irotzen topatutako gizon batek erranik badakigu, herrietako esamolde batzuk kantatu egiten zituztela, 'Uso zuria' kantu famatuaren gisako doinuaren. Kon-

tutan hartu beharra dago non den Irotz, hots, Esteribarko hegoaldean, Iruñetik hurbil hurbil. Esate baterako: 'Erripa luze Lintzoaingo/erota sendo Erredingo'. edota, 'Belaun handia Larraingoako/sopikun jaleak Ardaizko'. Ale batzuk ikusi ondoren, hobereana da bildutako guztiak ematea, eta ibarrez ibar sailkatuak.

ULTZAMA: Larraintzar polaintzar; Eltzaburu konporta bete zorriburu, haiek jan eta berriz bildu; Suerbe, eltzean katu berde; Alkotz, arrotz; Urritzoal, zapela zola; Iraizotz, meta zoitz; Gorrontz-Olano, biek 'hermano'; Ilarregi, barrabil gorri; Eltso, ka-

rrike luze eta diru faltso; Geren diain, tilin tilin panpalin; Arraitz, deskargaitz; Orkin, otsoak ipurdin kozk'in; Lozen, ipurdin gizen; Zenotz, puztan motz; Liza-so, ipurdi laso; Auza deustako ez gauza, Auze kak'iteko ezta gauze; Ultzamarra bragetaundi eta Ultzamarra panparra.

IMOTZ: Urritza pantasiosoak; Goldaratz airosoak; Latasa dantzariak; Eraso pantalon laso; Etxaleku, kak'iteko nahiko leku; Zarrantz, astoak ganbelan arrantz; Oskotz, baduk hor makin gizonmotz.

BASABURUA: Beramendi eta Udabe, bi fundamentu gabe; Er-

biti ta Gartzaron, txokolata har'tzagun; Erbiti, gizon presto guti; Iaunsarats, ijito herri; Ihaben, Madril txiki; Igoa, sartzak ipurditik bigoa.

SAKANA: Lakuntza, auntsaren putza; Arruazu, zarea buruan daramazu; Arbizu, ja ja diozu; Uharte, haizea fuerte; Hiriberi, Madril Txiki; Etxarri, bi txerri hiru marabedi; Bakaiku, ez esne eta ez kaiku.

LARRAUN: Aldatz, ipurdi latz; Mugiro, ez da han beti giro; Etxarri, lepoa bete txintzarri; Lekunberri, zakur herri.

ANUE: Olague, fut, Olagu, fama hala du; Xirimonea Egozkuego; Onze casas Aritzuko; Kutrillo Leazkuego; Zopa jale Etsaingo; Landak eder Etulaingo; Pertika luze Burutaingo.

OLAIBAR: Otsakain bekain, Babazorro Olabeiko; Harri muskil haundi Olaizko; ttun ttun haundi Beraizko.

ODIETA: Andrek eder Ostizko; Ezkilek eder Enderizko.

ATEZ: Atez, zazpi herri eta lau apez; Buntze, ipuru jende.

TXULAPAIN: Usi, han berean eta ez ikusi.

ARRIASGOITI: Lur me franko Zalbako.

ARAITZ: Arribe eta Ataio, urre gorriak bataio; Azkarate eta Bedaio, alkar ezin eraio; Atallu, kopetan bi kankallu.

ERROIBAR: Mezkitz eta Oronditz, ogi gutti eta haur aunitz; Belaun handia Larraingoaiko; Sopikua jale Ardaizko; Juramentu haundiak Erroibarko.

ARTZIBAR: Orotz Betelu; Orotzarrak kokote/mando zahar bat hil dute/eztute kazuela ttar bat ere/ta-txerrien aspillean jaten dute.

BAZTAN: Baztan xerri buztan; Oronotz, galtza motz; Almdandoz kizkoz; Elbete, kakuet, mando zahar bat jan dute; Elizondo mango, arto gutti jango; Amaiur, haurren xatairak ezin bihur; Erratzu, mila petatzu; Azpilkue-ta, jo ta bota; Arizkun, domines boviscum; Bozate, kito ta kasta txar guziek hor zate; Iruite, toca la xilubite; Aniz, zazpi etxe, zazpi labe, hamalau zetabe; bata bertzeaz behartu gabe.

ERREKA: Elgorri, behi gorri; Oiz, jeiki goiz; Urrotz, mutur zorrotz; Donamari, ate zuri; Gaztelu, zerri kapelu; Egia ta fedea, Ezkurako legea; Labaindar, zatar zar; Doneztu, hamar mila kaprestu; Saldiz, nahiz astoz nahiz zaldiz.


BORTZIRIAK: Igantzi, mandatu bakar bat eta hura ere ahantzi.



Gazteendako Zoko



XAKEAN



Nafarroako taldekako xake txapelketaren 7. jardunaldiko partida, 1992ko azaroaren 28an jokatu. Jose Leuza (Anaitasuna) Iñaki Reboleren (Orvina) aurka.

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ab5,g6; 4.c3, Ag7; 5.De2,a6; 6.Ac6,d-c6; 7.d3,Zf6; 8.Ac3,b6; 9.h3,0-0; 10.bZ-d2,a5; 11. a4,Aa6; 12.c4, Ze8; 13.Zb3,Zd6; 14. 0-0,Ga7; 15.aG-d1,Gd7; 16.Af4,Gel; 17. e5,Zf5; 18.g4,Zh6. Zaldiari itxi dio irtenbidea. 'Zd4' ezinbestekoa zen. 19.De3, Ac4; 20.Zc1, Ad5; 21.Zd2, Zg 4; 22. g4,e6; 23. Ag5,f6; 24.Ah4,Gf8; 25. Ze4,Ae4; 26.De4,Gd4; 27.Dc6, Gg 4xa; 28.Ag3,Eh8; 29.De6. Izugarritzko hutsa. Dama jokoz kanpo utzi du, eta beltzei eraso erabakiorra egiteko aukera eman (ikus koadroa). 29...f5; 30. Eh 1,Da8 a; 31.Eh2,Df3; 32.Ze2. Beltzen 'f4' galerazteko jokaldirik ez zuen. Partida galduta dago. 32...De2; 33.dG -e1,Dd3; 24.eG- d1,Df3; 35.Eh3. Bi jokalditan mate dator (Gh4 xa, eta Dg4). Txuriek etsi zuten. Xake partida azkenaurreko hutsa egiten duenak irabazten omen du.

Bertsoak

Ekaineko azterketei bertsoak. Leitzako Bertso Eskolakoak.

Ekain aldera etortzen zaigu guri azterketen gerra lan asko egin behar da eta ezin da izan alperra alde batera utzi behar da alperkeri ta piperra edo udaran pagatu behar egiten bada okerra ikasleentzat ez da izaten hau hilabete ederra

Sasoi honetan ematen dugu estudiantzeko makinak azterketan jarri beharra urte guztian eginak eta batzutan alperrik dira egindako ahaleginak lo gutxi egin, gutxi atera gainera buruko minak horrelakoak izaten dira ekaineko esaminak

Oskar Estanga

Jenero Xumekoak

Goñikoa izatearen garrantzia

Nire bihotzeko Mikel Aingeruak zure irudiaren dragoia akabatu nahi du. Hain erreza balitz, Goñi herria ez litzateke hain ospetsua izanzen, eta Aralarrek ere ez leukake horrelako monas-tegi ederra.

JEREMIAS ERRO

Errukia

Egia esan ez dakit nondik zertorkidan ahots bitxi hura, baina barru-barrukoa zela banekien. Egia esan ez nuen horri buruz inoiz amaren benetako iritzia entzun, zeren eta aitaren aurrean esaten zuen guztiaz ezin nintzela fido iruditzen baitzitzaidan. Zer, horrelako senarra edukita!

Amaren esklabu egoera tristea pixkanaka gehiago ezagutu, nabaritu nuen. Penagarria zen. Baina urteak aurrera zihoazen eta aita senarrak ez nuelako arduratuturik zegoen. Ni, berriz, amarengatik arduratua nengoen.

Azkenik aita, nik senarra bilatzeko ezer egiten ez nuela ikusirik, baten bila hasi zen. Astero ekartzen zuen mutil desberdin bat afaltzera etxera, baina niri ez zitzaizkidan atsegin aita bilatu zizkidan 'pretendienteak'. Mutilengatik interesik agertu gabe jarraitzen nuenek aita (madarikatua!) banketxeko bere lagun baten semearekin ezkontzera behartu ninduen. Nik ez nuen nahi, eta aita inoiz ez bezala go-

rrotu nuen. Etxetik aldegitia ere pentsatu nuen, baina bai zera! aita bezalakorik inoiz ezagutzen bazuze, kontuz! ez hautsi berarekin topo egitean. Eta noski ama guzti honetatik at zegoen, berak ez zuen eritizirik.

Nire senarra eta biok seme bat eduki genuen ezkondu ginenetik bederatzi hilabetera (ezkontza gauezik). Aitaren igoal igoala zen nire senarra, ez dakit aitaren lagunaren semea edota aitaren beraren semea zen, ez zegoen desberdintasunik. Ni senarraren esklabu sentitu nintzen eta ezin nuen honen aurka ezer egin, erotzekoa zen! Gainera nire semeak, nire odolaren odol, aita bezal-bezalakoxea izango zenaren ustea nuen, aita hezi baitzuen.

Jadanik ez nintzen amaz bakarririk errukitzen, ni errukien zerrrendan parte hartzera igaro nintzen. Gizon hari loturik «onean eta txarrean, bizitza guztirako, heriotza heldu arte»... Nere bizitzan lehenengoz nitaz erruki nintzen!



KAZKARROAN

L D R A H E I N E O I H
K I A Z I Z U I H R U D
N U Z G A L N K A K T E
E T S A E B U D Z O N U
N I A I S A G T A I L A
N A A T E O O I K E A R
B I N E Z K A A R N I A
I B T I Z A B I A U N T
I R E A B J O D N E A Z
R O T R A E D N I O K U
I R D N I A R G Z R A R
A O U A Z T L O T A N I

LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Oltzako zendea osatzen duten 10 herrien izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.



Urederra

Esan dezadan aurrea ibai honekin ez dagoela inolako problemarik, erabilera eta grafia, dena, zuzena da. Hala ere B. García de Albizuk emandako datuekin oso gai interesgarria jorrari zitekeela iruditzen zitzaidan, uraren izena, hots, erreka, ugalde eta ibaien izenak dituzten ezaugarri amankomunak eta, aldi berean, gainerako toponimoetatik bereizten dituztenak.

Hiritarrok ohituak gaude, ibaien kontu honetan, oso naturala ez den egoera batera. Oharkabe konbentzio bat ezarri dugu ibaien izenetan: Ur korronte batek izen bakarra izanzen du sortzen den tokitik beste ibai batera biltzen den lekuraino. Adibideak. Arga Eugin sortzen da eta Funesen sartzen da Aragon ugaldean. Inori ez zaio baieztapen hau harrigarria irudituko baina, (beste artikulu batean ikusiko dugunez) zinez, egoera ezin artifizialagoa da.

Nekazari bati galdetuko bagenu bere herriko erreka baten izena, seguruenik, zer erantzun ez dakiela geldituko litzateke. Zergatik? Urak izenik ez duelako. Errekek, eta baita ugaldeek ere oraintxe ikusiko dugun bezala, tokian tokiko izena hartzen dute. Parajeak ematen dio izena errekarri, ez alderantziz. Demagun erre-kasto batek, ugaldera bildu baino lehen, A, B eta C izeneko alderdiak zeharkatu behar dituela. Delako erre-kasto hori, bada, Ako erreka izanzen da batean, Bko erreka geroxeago eta Cko erreka azkenean. Alferrik galdetzea, beraz, erreka izena. Gure herritarren artean ez du zentzurik galdera honek, edo ez zuen oraintsu arte.

Baina hau ez da soilik gertatzen erreketan, ibaietan ere usu antzematen da antzeko egoera. Urederrari, konparazio batera, Rio de Ubaba esaten zaio sortzen den leku aldean. Rio de Urederra oihanetatik ateraz agerian azaltzen zaigun alderdian eta Rio de Inzura Barindanoko zubia pasata, Allinibarko muga bitartean. Jakin badakigu Ubaba dela ibaiaren sorlekua eta Ubaba ere esaten zaio Limitazioetan iturbegiaren gaineko arraso bati. Urederra, berriz, izen bereko ezker aldeko ur-bazterrean dagoen arraso da, Raso de la Caseta ere deitua. Eta Inzura Allinibar eta Ameskoaren arteko potxeari deitzen diote. Ohizkoena, gainera, bertan beste ibairik ez baitago, El Rio esatea da.

Hurrengo zenbait artikulutan ere ikusiko dugu nola errepikatzen den fenomeno hau, eta nola, gorago aipatutako konbentzioari atxikiaz, izen bakar bat hobetsi dugun herritarren usadioari muzin eginez.

MIKEL BELASKO

XOUSE SIMAL

Piriniotan kresal bila

Itsaslur taldeak Bidarraira (Nafarroa Beherea) antolatzen ditu txangoak, egun erdiko jeitsierak egiteko (3.500 pezeta). Hala eta guztiz ere, *rafting-ak* eskatzen duen bizitasuna udan Kataluniako Piriniotan bakarrik aurkitu daitekeela diote Itsaslur-rekoek. Hori dele eta, Noguera Pallaresa gomendatzen dute abuzturako. Sei eguneko bidaiak antolatu dituzte, 33.000 pezetan, Sant Andoni lakua eta Aigues-tortes Parke Nazionala ezagutzeko eta Noguera Pallaresa Lleidako ibaitik behera jeitsierak egiteko.

Alberto Martin

.....eskubaloj jokalaria

Alberto Martini hasiera batean saskibaloia gehiago gustatzen bazitzaion ere, hamahiru urte zituelarik eskubaloian hasi zen Anaitasuna taldean. Hemezortzi bete zituenean estreinekoz jantzi zuen San Antonioren elastiko zuriurdina,

eta 23 dituela Cadagua Galdarrena soinean eramanen du heldu den denboraldian; izan ere, ez da mirakulurik izan eta San Antoniok amore eman du. Babeslerik eza dela medio, aurten Nafarroak ez du ordezkariarik izanen Ohorezko Mailan.

«Gustura noa, baina...»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Aurtengo urrian Mepamsa enpresak San Antoniok diru gehiago ez ziola emanen jakinarazi zion Fermin Tajadura lehendakari antoniarrari. Ordutik aurrera San Antonioren xede bakarra babesle bat topatzea izan da. Volkswagenekin eduki harremanek porrot egin zuten, eta uztailearen 14an, taldea Asobal ligan zuen tokia saltzear zegoelarik, Tajadurak Alfredo Jaime Iruñeko alkatearen deia jaso zuen. Dei horren arabera Nafarroako GobernuaK taldea aurrera atera nahi zuen, eta CANek —Nafarroako

Aurrezki Kutxa— San Antonio babestuko zuen. Nafarroako Gobernuak Kontseilariak gehiengo osatzen dute CANeko Administrazio Kontseiluan, baina hala eta guztiz ere Kontseiluak San Antoniok babesle ez ematea erabaki zuen uztailearen 19an. Horren ondorioz San Antoniok Asobal ligako plazaren truke lor zezakeen dirua galdu du, jokalariek kontrato hobeak lortzearena, eta Alberto Martin Kanariar irletara doa.

EGUNKARIA.— Urruti samar daude Kanariar iriak...

ALBERTO MARTIN.— Bai, egia esateko bai. Egon diren arazoak direla eta horra joan behar izan dut. Egun batean San Antonio desagertuko zela esaten zuten, eta hurrengoan ezetz. Eduki banituen beste eskaintza batzuk, baina baztertu nituen.

EGUNKARIA.— Damutzen al zara horretaz?

MARTIN.— Ez, pozik nago, eta gustura noa Galdarrera, baina... Eguzkia ez zait gehiegi gustatzen, eta ez da gauza bera Iruñetik kotxez ordu betera egotea edo Kanariar irletara joatea. Bidasoekin fitxatzeko aukera izan nuen. Ez zen gauza ziurra, baina harremanak izan genituen. Iñaki Ordoñez fitxatu nahi zuten, baina Alcalak ezetz esan zituenean niregana etorri ziren. Ni fitxatu nahi nindutela esan zidatenean, uztailearen 14an, CANen laguntzaz taldea aurrera aterako zela esan zuten San Antoniokoek, eta negoziazioak bertan behera utzi nituen. Ni momentu horretan libre egon izan banintz egun, ziurrenik,

MARTIN.— Ez, pozik nago, eta gustura noa Galdarrera, baina... Eguzkia ez zait gehiegi gustatzen, eta ez da gauza bera Iruñetik kotxez ordu betera egotea edo Kanariar irletara joatea. Bidasoekin fitxatzeko aukera izan nuen. Ez zen gauza ziurra, baina harremanak izan genituen. Iñaki Ordoñez fitxatu nahi zuten, baina Alcalak ezetz esan zituenean niregana etorri ziren. Ni fitxatu nahi nindutela esan zidatenean, uztailearen 14an, CANen laguntzaz taldea aurrera aterako zela esan zuten San Antoniokoek, eta negoziazioak bertan behera utzi nituen. Ni momentu horretan libre egon izan banintz egun, ziurrenik,

CANek laguntza eman behar zuela esan zutenean libre egon banintz, orain Elgorriagako jokalaria nintzateke».

Bidasoako jokalaria nintzateke.

EGUNKARIA.— Urtean zehar Tajadura lehendakariak eta Zupo Ekisoin entrenatzaileak zuen profesionaltasuna kolokan jarri dute behin eta berriz. Une latzetan profesionaltasunak eskatzen duena baino gehiago eman duzue.

MARTIN.— Bai, azkenean gu izan gara kaltetuenak. Villaldea, Jau-regi, atzerritarak eta nik neuk beste talde batzuen eskaintzak genituen eta ez genituen onartu. Agian gu izan gara jokalarien artean kaltetuenak. Azkenean, guztiek korrika eta presaka bilatu behar izan dugu beste talde bat.

EGUNKARIA.— Nola ikusi duzu zuk desagertu luze honen garapena?

MARTIN.— Volkswagenekin San Antoniokoek hanka sartu zutela uste dut. Ezin duzu soil-soilik babesle batekin hitz egin. Denbo-



OSKAR MONTERO

raldi hasiera-hasieratik Mepamsak ez zuela jarraituko bazekiten. Zergatik ez ziren hiru babeslekin saiatu gertatu zena gerta ez zedin? Gainera Volkswagenekin hitz egin bai, baina ez zuten inolako paperarik lortu. Hori lehen hanka sartzea izan zen. Gero, Miguel Sanzek Sanferminak hasi aurretik babesle bat topatzen saiatuko zela esan zutenean susmo txarra hartu nion. Sanferminetan Sanferminetaz besterik ez da hitz egiten egunkarietan, eta seian ezetz esango zuela pentsatzen nuen. Hala eta guztiz ere, arazoa egunkarietan agertu zen. Gero Jaimek egin zuena, CANek taldea babestuko zuela. esatea alegia, gobernuaren aurpegia garbitzeko egin zuela uste dut.

EGUNKARIA.— Zein izan da desagertuaren errudun nagusia?

MARTIN.— Azkenean, nire ustez Administrazioaren errua izan da, eta amorru handia eman zigun Indurainen garaipena dela eta gobernuak guztiak Parisen ikusteak. Baina San Antoniokoek ere hanka sartu dute. Gobernuari leporatu diote taldearen desagertuena, baina haiek ere hanka sartu zuten. Bestalde, prentsurrekoan Tajadurak egunkariak aipatu zituen, eta nire ustez haiek ere errua izan dute, egin zezaketena baino askoz gutxiago egin baitute. Azkenean denon errua izan da.

EGUNKARIA.— Tajadurari zenbakietaz asko, baina eskubaloiaz ezer gutxi jakitea leporatu izan zaio.

San Antonioko Zuzendaritza Batzordeak Nafarroako Gobernuari leporatu dio taldearen desagertuena, baina haiek ere hanka sartu dute».

MARTIN.— Tajadurak lehendakari lanetan hasi zenean ongi zekien ekonomiari dagokionean zer egin behar zuen. Hor primeran egin dute dena, eta zorra estaltzea lortu dute, baina eskubaloiaz ezer ez daki. Hor guztia Zupo Ekisoin entrenatzaileak egin du. Berak guztia kontrolatu du. Egun batean Zupok gauza bat esaten zizun, eta hurrengo egunean komunikabideetan Tajadurak Zupok esandako gauza bera esaten ikusten zenuen. Hori ospadierazgarria da. Gauzak ez dira ongi egin. Zupo jabea zen, eta talde batean ezin da hori egin.

EGUNKARIA.— Desagertuena eragin duten arazoien artean aurten egin duzuen denboraldi makala aipatu izan da. Zer deritzozu horri?

MARTIN.— Ez dut uste horrek eragin handiegia izan duenik. Enpresa bat dirua sartzeko prest baldin badago, denboraldi txarra egiteak ez du eragin handiegirik izanen haren erabakian. Agian zaletuengan eragin handiagoa izan du horrek, haien erantzuna makala izan baita.

EGUNKARIA.— Nola dakusazu nafar eskubaloian geroa?

MARTIN.— Ilun-iluna. Gutxienez hamar urte pasatuko dira Nafarroako Ohorezko Mailan berriro ere ordezkari bat eduki arte.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERBA

